



Uztailak 2, 3 eta 4



9:00-14:00



Donostiako EHU

## 19. Ikas-egoerak programatzen ikasi Proiektu Bidezko Ikaskuntzaren (PBI) bidez

Nahiz eta Proiektu Bidezko Ikaskuntza bezalako metodologia aktiboak ikasleen konpetentzien garapena sustatzeagatik aintzat hartzen diren, oraindik ez da ohikoa ikastetxeen egunerokoan ezartzea.

Hezkuntza legeek 2006tik ikuspegi horiek sustatzen dituzten arren, ikaskuntza aktiboan eta esanguratsuan baino gehiago, memorizazioan ardatzen diren egiteko moduen erabilera tradizionala nagusitzen da oraindik.

Irakasleen artean ziurgabetasuna antzematen da proiektuekin lan egiteari dagokionez. Prestakuntza honek orientabidea eta adibide praktikoak eskaintzen ditu irakasleek konfiantza hartzeko eta estrategia metodologiko hau ikasgelan txertatzeko.



### Mikel Fernandez Sanchez

Irakasleen aholkularia eta  
formatzailea.

Eman izena



Haur eta Lehen Hezkuntzako maisu-  
maistrentzat.  
Bigarren Hezkuntzako eta Lanbide  
heziketako irakasleentzat.



Batez ere izaera praktikoa dauka,  
eta praktika horretan oinarrituta gako  
teorikoetan sakonduko dugu.

### LANDUKO DIREN GAIAK

- PBIren oinarri teorikoak
- Proiektu bat diseinatzea
- PBI: ebaluazioa eta inklusioa
- Irakaslearen eta ikaslearen rolak
- Proiektu eredu errealean azterketa